Edukiak

Matematika II irakasgaiaren curriculumak, batxilergoko beste irakasgaienak bezala, konpetentzia jakin batzuk erdiestea du helburu, honako hauek hain zuzen:

- Eguneroko bizitzako eta zientziako eta teknologiako problemak modelizatzea eta ebaztea, hainbat estrategia eta arrazoitzeko modu aplikatuz, soluzio posibleak lortzeko.
- Problema baten soluzio posibleen baliozkotasuna egiaztatzea, arrazoiketa eta argudiaketa erabiliz, horien egokitasuna egiaztatzeko.
- Aieruak edo problemak formulatzea eta ikertzea, arrazoiketa eta argudiaketa erabiliz, tresna teknologikoen laguntzarekin, ezagutza matematiko berria sortzeko.
- Pentsamendu konputazionala modu efikazean erabiltzea, matematika erabiliz algoritmoak aldatuz, sortuz eta orokortuz, eguneroko bizitzako eta zientziaren eta teknologiaren esparruko egoerak modelizatzeko eta ebazteko.
- Ideia matematikoen arteko loturak ikertzea eta erabiltzea, kontzeptuen, prozeduren, argudioen eta ereduen arteko loturak ezarriz, ikuspegi matematiko integratua sortzeko.
- Matematikak beste jakintza-arlo batzuekin dituen erlazioak ezagutzea eta horietan sakontzea, kontzeptuak eta prozedurak hainbat egoeratan erlazionatuz, problemak ebazteko eta konpetentzia kritikoa, sortzailea eta berritzailea garatzeko.
- Informazio, kontzeptu eta prozesu matematikoak irudikatzea, hainbat teknologia hautatuz ideiak bistaratzeko eta arrazoibide matematikoak egituratzeko.
- Ideia matematikoak banaka eta taldean komunikatzea, euskarri, terminologia eta zorroztasun egokiak erabiliz, pentsamendu matematikoa antolatzeko eta sendotzeko.
- Trebetasun pertsonalak eta sozialak erabiltzea, emozioak identifikatuz eta kudeatuz, akatsa eta ziurgabetasuna onartuz, erlazio osasungarriak sortuz eta talde heterogeneoetako proiektuetan aktiboki eta hausnarketa bidez parte hartuz, matematika ikasteko helburuak hobeto lortzeko.

Konpetentzia horiek oinarrizko jakintzen bidez lortu behar dira. Matematika II irakasgaiaren oinarrizko jakintzak sei zentzutan taldekatzen dira:

- Zentzu numerikoa
- Neurri-zentzua
- Espazio-zentzua
- Zentzu aljebraikoa eta pentsamendu konputazionala
- Zentzu estokastikoa
- Zentzu sozioafektiboa.

USaPen ebalua daitezkeen oinarrizko jakintza komunei dagokienez, honako hauek proposatzen dira funtzesko marko gisa:

ZENTZU NUMERIKOA:

- Bektoreen eta matrizeen batura eta biderkadura: propietateen behar bezalako ulermena eta erabilera.
- Zenbaki errealekin, bektoreekin eta matrizeekin jarduteko trebetasunak.
  - Eskalar bat eta bektore baten arteko biderkadura.
  - Bi bektoreren biderkadura eskalarra espazioan: definizioa, propietateak eta aplikazioak.
  - Bi bektoreren biderkadura bektoriala espazioan: definizioa, propietateak eta aplikazioak.
  - Hiru bektoreren biderkadura mistoa espazioan: definizioa, propietateak eta aplikazioak.
  - Matrize karratu baten berretura: matrize baten berretura kalkulatzea egoera ziklikoetan.
  - Determinanteak: definizioa, propietateak eta kalkulua.
  - Alderantzizko matrizea: definizioa, propietateak eta kalkulua.
  - Matrize baten heinaren kalkulua, agian parametro baten edo batzuen mendekoa, Gauss-en metodoa edo determinanteak aplikatuz.
- Bektoreen eta matrizeen multzoak: egitura, ulermena eta propietateak.
  - Oinarriaren eta mendekotasunaren eta independentzia linealaren kontzeptuak.
  - Matrize motak: errenkada, zutabea, karratua, diagonala, triangeluarra, nulua, identitate, iraulia, simetrikoa eta antisimetrikoa.

NEURRI-ZENTZUA

- Koordenatu kartesiarren sistema batean luzera, azalera edo bolumena neurtzea eskatzen duten problemak ebaztea.
- Funtzioen bidez modeliza daitezkeen egoerak irudikatzeko eta aztertzeko limitearen, jarraitutasunaren eta deribagarritasunaren kontzeptuak aplikatzea.
  - Funtzio baten puntu bateko limitearen kontzeptua (finitua zein infinitua) eta albo-limiteena aplikatzea, funtzio baten jarraitutasuna eta asintota bertikalen existentzia aztertzeko.
  - Funtzio baten infinituko limitearen kontzeptua aplikatzea, asintota horizontalen eta zeiharren existentzia aztertzeko.
  - Jarraitutasuna tarte batean. Bolzanoren teorema eta aplikazioak.
  - Eten-motak.
  - Funtzio jarraituen propietate aljebraikoak eta funtzioaren grafikoaren zirriborroa ezagutzea etenpuntuen ingurune batean.
  - Funtzio baten puntu bateko jarraitutasunaren eta deribagarritasunaren arteko erlazioa ezagutzea.
  - Zatika definitutako funtzioen jarraitutasuna eta deribagarritasuna.
  - Funtzio deribatuaren eta funtzio baten puntu bateko deribatuaren balioaren arteko bereizketa. Funtzio baten deribagarritasun-eremua zehaztea.
  - Funtzio konposatuetarako deribazio-teorema ezagutzea eta erabiltzea (katearen erregela).
  - Albo-deribatuak.

  - Rolleren teorema ezagutzea.
  - Lagrangeren batez besteko balioaren teorema ezagutzea.

- Deribatua aplikatzea problemak hainbat testuingurutan ebazteko.
  - Funtzio baten gorakortasun- eta beherakortasun-tarteak zehaztea, deribazioa erabilita.
  - Funtzio baten grafikoaren zuzen ukitzailearen eta zuzen normalaren ekuazioa puntu batean zehaztea.
  - Funtzio baten ganbiltasun- ($f''(x) < 0$) eta ahurtasun-tarteak ($f''(x) > 0$) zehaztea, deribazioa erabiliz
  - Funtzio baten puntu kritikoak (lehenengo deribatua nulua duten puntuak) eta funtzioa deribagarria ez den puntuak aztertzea.
  - Funtzio jarraituen eta funtzio deribagarrien teoria erabiltzea mutur erlatiboen eta absolutuen problemak ebazteko.
  - Geometriarekin edo zientzia esperimental eta gizarte-zientziekin lotutako optimizazio-problemak ebaztea, eta testuinguruaren barruan lortutako emaitza interpretatzea.
  - Funtzio polinomikoak, arrazionalak, esponentzialak, logaritmikoak, trigonometrikoak eta zatika definitutakoak gutxi gorabehera aztertzea eta irudikatzea, analisiaren tresnak erabiliz lortutako propietate globalak eta lokalak oinarri hartuta (limiteak eta deribatuak).
  - $y = f(x)$ formako funtzio baten grafikoaren gutxi gorabeherako irudikapena, honako hauek adieraziz: eremua, simetriak, periodizitatea, ardatzekiko ebaketak, asintotak, gorakortasun- eta beherakortasun-tarteak, mutur erlatiboak, ganbiltasun- eta ahurtasun-tarteak eta inflexio-puntuak.
  - Funtzio baten edo haren deribatuaren irudikapen grafikoa ezagututa, funtzioaren beraren informazioa lortzea (limiteak, albo-limiteak, jarraitutasuna, asintotak, deribagarritasuna, gorakortasuna eta beherakortasuna, etab.).

- Deribatua aldaketaren arrazoi gisa: interpretazio geometrikoa.
- Integral mugatua kurba baten azpiko azalera gisa interpretatzea.
- Eremuen azalerak kalkulatzea, oinarrizko integrazio-teknikak erabilita.
  - Jatorrizkoaren kontzeptua. Propietateak.
  - Berehalako jatorrizkoak.
  - Funtzio arrazionalen jatorrizkoak, zeinen Izendatzailearen erroak errealak diren.
  - , Zatikako integrazioaren metodoa (behin eta berriz aplikatuz).
  - Aldagai-aldaketa bidezko integrazio-teknika.
  - Bi funtzio ematen direnean, adierazpen analitikoen bidez edo irudikapen grafikoen bidez, bata bestearen jatorrizkoa den jakitea. Funtzio beraren bi jatorrizkoen arteko erlazioa.
  - Jatorrizkoen familia batean, grafikoki puntu jakin batetik igarotzen dena zehazten jakitea.
  - Barrow-en erregela aplikatzea.
  - Integralak integrakizunarekiko duen linealtasun-propietatea ezagutzea eta integrazio-tartearekiko gehigarritasun-propietatea ezagutzea.
  - Azalerak integral mugatuen bidez kalkulatzea.

  - Integralaren kontzeptua gainazal lauak eta biraketa-bolumenak kalkulatzea eskatzen duten problemak ebazteko aplikatzeko teknikak.

- Probabilitatea, ausazko fenomenoei lotutako ziurgabetasunaren neurri gisa.

ESPAZIO-ZENTZUA

- Hiru dimentsioko objektu geometrikoak: propietateen analisia eta ezaugarrien zehaztapena.
- Koordenatu kartesiarren eta bektoreen bidez irudikatutako espazioko objektuei buruzko problemak ebaztea.
- Espazioko objektu geometrikoen adierazpen aljebraikoak: egokiena hautatzea testuinguruaren arabera: zuzen baten eta plano baten ekuazioak hiru dimentsioko espazioan.
  - Hiru dimentsioko espazioan zuzenen eta planoen intzidentziarekin eta paralelismoarekin lotutako antzeko geometria-problemak planteatzea eta ebaztea.
  - Zuzen bat barnean duen eta kanpoko puntu batetik igarotzen den planoa eraikitzea.
  - Bi zuzen paralelo edo ebakitzaile barnan dituen planoa eraikitzea.
  - Espazioan gurutzatzen diren bi zuzen perpendikularki ebakitzen dituen zuzenaren eraikuntza.
  - Gurutzatzen diren bi zuzenen kanpoko puntu batetik igarotzen den eta zuzen biak ebakitzen dituen zuzenaren eraikuntza.
  - Espazioko puntuen, zuzenen eta planoen posizio erlatiboa aztertzea.
  - Geometria metrikoko problemak planteatzea eta ebaztea: zuzenen eta planoen arteko angeluak neurtzea, puntuen, zuzenen eta planoen arteko distantziak neurtzea, eta zuzenen eta planoen arteko ortogonaltasuna.
  - Planoen eta/edo zuzenen posizio erlatiboen problema bat interpretatzea ekuazio linealen sistema baten soluzioen analisi gisa.
  - Bektore normalak plano batekiko, gurutzatzen diren bi zuzenekiko perpendikular komuna, beste birekiko bektore perpendikularra, triangeluen eta paralelogramoen azalerak eta tetraedroen eta paralelepipedoen bolumenak.
  - Espazioko simetriaren azterketa: beste puntu batekiko, plano batekiko eta zuzen batekiko puntu simetrikoa.
- Objektu batek espazioan duen posizioa eta mugimendua modelizatzea, bektoreak erabiliz.

ZENTZU ALJEBRAIKOA ETA PENTSAMENDU KONPUTAZIONALA

- Patroiak eta erregulartasunak askotariko egoeretan: identifikatu eta orokortzea.
- Harreman kuantitatiboak askotariko egoeretan: horiek modeliza ditzaketen funtzio-motak identifikatzea eta zehaztea.
- Hainbat testuingurutako egoerak modelizatu eta ebazteko ekuazio-sistemak.
- Zientzia eta gizarte testuingurutatik eta eguneroko bizitzatik eratorritako egoerak modelizatzeko matrizeak.

- Ekuazio linealen sistemak agertzen diren egoerak modelizatzeko teknikak eta matrizeen erabilera.
  - Matrizeak erabiltzea datu egituratuak eta testuinguru errealeko egoerak irudikatzeko.
  - Ekuazio-sistemak: egoeren modelizazioa hainbat testuingurutan.
  - Ekuazio linealen sistema bat matrize-forman adieraztea eta matrize zabalduaren kontzeptua ezagutzea.
- Ekuazio linealen sistemak: bateragarritasunaren azterketa (Rouché-Frobeniusen teorema) eta ebazpena (Cramer, Gauss) hainbat testuingurutan.
  - Sistema bateragarriak (zehatzak eta zehaztugabeak) eta bateraezinak.
  - Rouché-Frobeniusen teorema.
  - Sistema linealen eztabaida, beharbada parametro baten edo batzuen mendekoak, Gaussen metodoaren bidez edo heinen zuzeneko azterketaren bidez.
  - Sistema linealak, beharbada parametro baten edo batzuen mendekoak direnak, abeztea Gaussen metodoaren bidez edo Cramer-en erregela erabiliz.
- Matrize-ekuazioak eta matrize-sistemak ebaztea, alderantzizko matrizea erabiliz eta ekuazio linealen sistema bihurtuz.
- Bektore-multzoen mendekotasuna eta independentzia lineala espazioan.
- Bektore bat beste bektore batzuen konbinazio lineal gisa adieraztea.
- Funtzio moten propietateak: ulermena eta konparazioa.

ZENTZU ESTOKASTIKOA

- Esperimentu konposatuetan probabilitateak kalkulatzea. Probabilitate baldintzatua eta gertaeren independentzia. Zuhaitz-diagramak eta kontingentzia-taulak.
  - Eragiketak gertaerekin. De Morganen legeak.
  - Kolmogoroven probabilitatearen axiomak edo Vennen diagramen marrazketa erabiltzea eskatzen duten problemak planteatzea eta ebaztea.
- Probabilitate osoaren eta Bayesen teoremak problemen ebazpenean, ziurgabetasun-egoeretan erabaki egokiak hartzeko
  - Probabilitate osoaren eta Bayesen teoremak erabiltzea edo zuhaitz-diagramak trazatzea eskatzen duten testuinguru errealeko problemak planteatzea eta ebaztea.
  - Problemak ebaztea eta Bayesen teorema interpretatzea, probabilitatea eguneratzeko, behaketatik eta esperimentaziotik eta ziurgabetasun-baldintzetan erabakiak hartzetik abiatuta.
- A priori robabilitatea, egiantza berresleitzea eta a posteriori probabilitatea zuhaitz-diagrama baten edo kontingentzia-taula baten bidez, eta Bayesen teorremarekin duen erlazioa aztertzea.
- Ausazko aldagai diskretuak eta jarraituak. Banaketaren parametroak.
  - Banaketa binomiala: definizioa, parametroak eta probabilitateen kalkulua, inplikatutako zenbaki konbinatorioak errazak diren kasuetan.

  - Banaketa normala: definizioa, parametroak eta probabilitateen kalkulua, banaketa normal estandarraren taula erabilita.
  - Binomiala normalera hurbiltzea.

- Probabilitate binomial eta normaleko banaketen bidez fenomeno estokastikoak modelizatzea.
- Probabilitate-problemak ebaztea testuinguru errealeko egoeretan.

ZENTZU SOZIOAFEKTIBOA

- Problemak eta ataza matematikoak ebazteko aukerak ebaluatzeko eta erabakiak hartzeko trebetasunak.

Nabarmendu behar da, eduki horiek USaPen behar bezala aplikatzeko, batxilergoko lehenengo mailan ezarritako oinarriak ere menperatu behar direla.

Azterketa eredua 1

LEHENENGO ARIKETA (2 puntu). Hegoafrikan, Kenyan eta Zambian M72 txertoa aplikatzeari buruz 2019ko abenduan argitaratutako emaitzen arabera, biriketako tuberkulosi aktiboaren aurka babestuta geratzeko probabilitatea 0,54 da. 3289 helduren talde bati txertoa aplikatzen zaio.

(a) Kalkulatu txertoa 1800 heldurengan eraginkorra izateko probabilitatea.

(b) Kalkulatu txertoa 1700 heldu baino gutxiagorengan eraginkorra izateko probabilitatea.

(c) Txertoa 1750 eta 1850 arteko heldurengan eraginkorra izateko probabilitatea $0,0037$ izan daiteke? Arrazoitu zure erantzuna, probabilitate hori kalkulatu gabe.

BIGARREN ARIKETA (2 puntu). Lantegi batek hiru ogi mota zerbitzatzen dizkie egunero bi okindegiri: gari-ogia, arto-ogia eta ogi integrala. Lehenengo okindegian 150 ogi-unitate jasotzen dituzte, eta bigarrenean, 200 ogi-unitate. Bigarren okindegi honetan, lehenengoan baino 10 gari-ogi gehiago eta ogi integralaren bikoitza jasotzen dute. Gainera, lantegiak egunero 50 arto-ogi egiten ditu eta guztiak bi okindegien artean banatzen ditu.

(a) Adierazi aurreko informazioa ekuazio linealen sistema baten bidez, hiru ezezagunekin, eta adierazi zer adierazten duen horietako bakoitzak.

(b) Egun batean, lantegiak ogi ez integraleko 140 unitate banatzen badizkio bigarren okindegiari, mota bakoitzeko zenbat ogi-unitate jasotzen ditu okindegi bakoitzak?

HIRUGARREN ARIKETA (2 puntu). Izan bedi $f(x) = x^3 + Ax^2 + Bx + C$. f funtzioaren grafikoaren zuzen ukitzaileak $x = -1$ eta $x = 2$ abszisa duten puntuetan paraleloak dira. Gainera, f-k mutur erlatibo bat dauka $x = 1$ denean, eta $f(0) = \lim_{x \to 0} \dfrac{e^{2x} - 1}{x}$ da.

(a) Aurkitu A, B eta C parametroen balioak.

(b) Aurkitu f-ren grafikoaren zuzen ukitzailearen ekuazioa $x = -1$ abszisa duen puntuan, $A = -3$, $B = 0$ eta $C = 4$ parametroen balioetarako.

LAUGARREN ARIKETA (2 puntu). Bietariko **bati bakarrik** erantzun, **4A** edo **4B**.

(4A) Izan bitez honako zuzen hauek:

$$r \equiv \begin{cases} x = 2\lambda, \\ y = -1 + 4\lambda, \\ z = 2 - \lambda; \end{cases} \qquad s \equiv \begin{cases} 2x - y = 1, \\ z = 3. \end{cases}$$

(a) Kalkulatu r eta s zuzenen posizio erlatiboa.

(b) Kalkulatu zuzen biak barnean dituen planoaren ekuazioa.

(4B) Izan bitez honako zuzen eta plano hauek:

$$r \equiv \begin{cases} 2x - y + z = 0, \\ x - y + 4z = 1; \end{cases} \qquad \pi \equiv 2x - 3y + Az = 10.$$

(a) Kalkulatu A parametroaren balioa r zuzena eta π planoa paraleloak izan daitezen.

(b) $A = 1$ bada, kalkulatu koordenatu-jatorriaren π planoarekiko puntu simetrikoa.

BOSGARREN ARIKETA (2 puntu). Bietariko **bati bakarrik** erantzun, **5A** edo **5B**.

(5A) Kalkulatu bi integral hauek:

$$\int \frac{2 - 3x + x^3}{x^2 + 2x + 1}\, dx, \qquad \int \frac{2 - 3x}{x^2 + 2x + 1}\, dx.$$

(5B) Izan bitez $y = x^2$ eta $y = \dfrac{x^2}{3}$ ekuazioetako kurbak eta $y = x$ ekuazioko zuzena. Marraztu hiru kurba horiek lehen koadrantean mugatzen duten eremua, eta kalkulatu eremu horren azalera.

Azterketa eredua 2

LEHENENGO ARIKETA (2 puntu). "MARKOAK" enpresan koadroetarako markoak egiten dituzte. Oraingo honetan 274 koadro laukizuzenetarako markoak eskatu dizkiete. Koadro guztiek dimentsio berdinak eta 0,3m^2-ko azalera dituzte. Marko bakoitzerako bi material mota erabiliko dituzte: atal horizontalak 12€/m kostua duen material batekoak izango dira, eta bertikaletarako 10€/m kostua duen material bat erabiliko dute. Eskaera egin duen enpresak ahalik eta gutxien ordaindu nahi du. Kalkulatu zeintzuk izan behar duten koadroetako neurriek ahalik eta gutxien ordaintzeko.

BIGARREN ARIKETA (2 puntu). $(0,0,2)$ puntutik abiatzen den dron batek $\vec{v}=(1,-1,3)$ bektoreak emandako norabideari jarraitzen dio, eta $(2,2,0)$, $(4,1,1)$ eta $(1,1,5)$ puntuak barne dituen horma leun baten aurka talka egiten du. Zein puntutan gertatzen da talka?

HIRUGARREN ARIKETA (2 puntu). Eztabaidatu honako sistema honen soluzioaren existentzia α parametroaren balioen arabera:

$$\begin{cases} \alpha x + 4y + z = 3, \\ \alpha x - 5y + 2z = -2, \\ 2x - y + 3z = 1. \end{cases}$$

Ebatzi sistema, ahal bada, $\alpha = 1$ denean.

LAUGARREN ARIKETA (2 puntu). Bietariko **bati bakarrik** erantzun, **4A** edo **4B**.

(4A) Kalkulatu bi integral hauek:

(a) $\displaystyle\int 2x\cos(2x+5)\,dx.$

(b) $\displaystyle\int \frac{x+495}{x^2-2025}\,dx.$

(4B) $y=(x-1)^2$, $y=(x+1)^2$ eta $y=7-3x$ ekuazioetako kurbak hartzen dira.

(a) Irudikatu hiru kurba horiek lehenengo koadrantean mugaturiko eremua.

(b) Kalkulatu aurreko ataleko eremuaren azalera.

BOSGARREN ARIKETA (2 puntu). Bietariko **bati bakarrik** erantzun, **5A** edo **5B**.

(5A) Mahai baten gainean botoiak dituzten hiru kutxa dauzkat; lehenengo kutxak 3 botoi ditu, bigarrenak 5 eta hirugarrenak 4. Kutxa bakoitzak botoi gorri bakarra dauka. Ausaz kutxa bat aukeratu eta ausaz botoi bat ateratzen badut:

(a) Zein da botoi gorri bat izateko probabilitatea?

(b) Botoi gorri bat atera badut, zein da lehen kutxakoa izateko probabilitatea?

(5B) Seriean fabrikatutako pieza baten pisuak (gramotan) banaketa normalari jarraitzen dio, non batez bestekoa 52 den eta desbiderapen tipikoa 6,5.

(a) Kalkulatu fabrikatutako pieza baten pisua 50 eta 68 gramoen artean egoteko probabilitatea.

(b) Fabrikatutako piezen % 30ek pieza jakin batek baino pisu handiagoa badu, zenbateko pisua du azken horrek?

Azterketa eredua 3

LEHENENGO ARIKETA (2 puntu). Gimnasio batek 230 m^2-ko azalera du, eta panelen bidez hiru gelatan antola daiteke, hainbat jardueratarako. Ordu jakin batean, 60 bazkide joaten dira, eta hiru jardueraren artean aukera dezakete: zumba, spinning eta yoga. Pertsona bakoitzak 3 m^2 behar ditu zumba egiteko, 6 m^2 spinning bizikletarako, eta 2 m^2 bere yoga estera jartzeko. Pertsona bakoitzari 200 ml ur emango zaizkio zumba egin behar badu, 400 ml spinning egin behar badu eta 100 ml yoga egin behar badu. 15 litro ur eman badira, zer azalera izan behar du areto bakoitzak aukeratu duten jardueran bazkide guztiak hartzeko?

BIGARREN ARIKETA (2 puntu). Kalkulatu $\displaystyle\int_1^2 \frac{2x^2+9x+8}{x^2+3x+2}\,dx$, jarraitutako urrats bakoitza azalduz.

Eskatu diogu Mikeli $\displaystyle\int_0^1 \frac{2x^2+9x+8}{x^2+3x+2}\,dx$ kalkulatzeko eta esan digu emaitza $3/2$ dela. Bigarren integral hori kalkulatu gabe, azaldu Mikeli zergatik ez den zuzena bere emaitza.

HIRUGARREN ARIKETA (2 puntu). Bi dado ditugu, bata normala eta bestea trukatua. Trukatuan bata 4 aldiz dago, eta bia 2 aldiz. Dado bat ausaz aukeratzen da, eta bitan jaurtitzen da.

a) Zein da lehen jaurtiketan 1 zenbakia eta bigarrenean 2 zenbakia lortzeko probabilitatea?

b) Lehenengo jaurtiketaren emaitza 1 zenbakia eta bigarrenarena 2 zenbakia izan direla jakinik, kalkulatu dado trukatua hautatua izateko probabilitatea.

LAUGARREN ARIKETA (2 puntu). Bietariko **bati bakarrik** erantzun, **4A** edo **4B**.

(4A) Izan bedi $f(x) = x^4 - 2x^3 + x^2$ funtzioa. Kalkulatu haren gorakortasun- eta beherakortasun-tarteak, eta aurkitu haren maximo eta minimo erlatiboak. Kalkulatu f-ren grafikoaren zuzen ukitzailearen ekuazioa $x = 2$ abszisa duen puntuan.

(4B) $f(x) = Ax^2 + Bx + C$ funtzioa gorakorra da $(-\infty, 1)$ tartean eta beherakorra $(1, +\infty)$ tartean. Gainera, f-ren grafikoaren zuzen ukitzailea $x = 2$ abszisa duen puntuan $y = x+2$ ekuazioko zuzenarekiko perpendikularra da eta $f(0) = \lim_{x\to 0} \dfrac{\sin x}{x}$ da. Kalkulatu A, B eta C parametroen balioak.

BOSGARREN ARIKETA (2 puntu). Bietariko **bati bakarrik** erantzun, **5A** edo **5B**.

(5A) Aurkitu $P(4, -3, 0)$ puntuaren P' puntu simetrikoa $A(-2, 0, 1)$ eta $B(-2, -1, 0)$ puntuetatik pasatzen den r zuzenarekiko.

(5B) Izan bitez $A(2, 3, 4)$, $B(3, -1, -2)$, $C(5, -1, 2)$ puntuetatik igarotzen den π planoa eta $D(6, -5, -4)$, $E(7, 1, 4)$ puntuetatik igarotzen den r zuzena.

(a) Kalkulatu π planoak eta r zuzenak osatzen duten angelua, emaitza gradu, minutu eta segundotan emanez.

(b) r-k eta π-k elkar ebakitzen badute, kalkulatu ebaki-puntua. Bestela, kalkulatu r zuzenaren eta π planoaren arteko distantzia.

Azterketa eredua 4

LEHENENGO ARIKETA (2 puntu). Arkitektura-enpresa bat estalki inklinatu bat diseinatzen ari da kirol-pabiloi baterako. Estalkia metalezko egitura baten gainean jarri behar da, eta egitura hori eraikinaren jatorrizko diseinuaren parte diren bi plano inklinaturen arteko elkargunean zehar hedatzen da. Plano horiek ekuazio hauek definitzen dituzte: $\pi_i\colon 3x+4y+5z=0$ eta $\pi_2\colon 2x+y+z=0$. Gainera, estalkia egituran jada eraikitako ainguratze-puntu batetik igarotzea nahi da, $A=(1,2,1)$ puntuan kokatua. Zehaztu A ainguratze-puntua eta π_1 eta π_2 planoen arteko ebakidura den zuzena barne dituen planoaren ekuazioa.

BIGARREN ARIKETA (2 puntu). Katilu zilindrikoen fabrikaziorako ikerketa bat egitea eskatu digute. Baldintza gisa, haien edukierak 216π cm^3 izan behar duela ezarri dute. Enpresak fabrikazioa ahalik eta merkeena izatea nahi du.

(a) Kalkulatu fabrikaziora bidali beharreko neurrien zehaztapenak helburua lortzeko.

(b) Katiluak kanpoaldetik koloreztatu egingo dira, eta horretarako erabiliko den materialaren kostua 3 €/m^2 da. Kalkulatu katilu bat koloreztatzeko kostua.

HIRUGARREN ARIKETA (2 puntu). zan bitez A eta B ausazko gertaera independenteak, haien probabilitateak $P(A)=0,7$ eta $P(B)=0,1$ izanik, eta izan bitez $\overline{A}$ eta $\overline{B}$ A eta B gertaeren osagarriak, hurrenez hurren. Kalkulatu honako probabilitate hauek arrazoituz, eta argi adierazi jarraitutako prozedura edo aplikatutako legea:

(a) $P(A\cup B)$,

(b) $P(\overline{A}\cup\overline{B})$,

(c) $P(\overline{A}\cap\overline{B})$,

(d) $P(A\cap\overline{B})$,

LAUGARREN ARIKETA (2 puntu). Bietariko **bati bakarrik** erantzun, **4A** edo **4B**.

(4A) Kalkulatu $\displaystyle\int \ln(x^2-1)\,dx$, jarraitu dituzun urratsak azalduz.

(4B) Izan bitez $y=\dfrac{x^2}{3}$, $y=x^2+2x$ eta $y=3$ ekuazioetako kurbak.

(a) Marraztu kurba horiek lehen koadrantean mugatzen duten eremua.

(b) Kalkulatu eremu horren azalera.

BOSGARREN ARIKETA (2 puntu). Bietariko **bati bakarrik** erantzun, **5A** edo **5B**.

(5A) Eztabaidatu honako sistema honen soluzioaren existentzia α parametroaren balioen arabera:

$$\begin{cases}\alpha x+y+z=2,\\ x+2y+(\alpha-1)z=-1,\\ 2x+y+(\alpha-2)z=1.\end{cases}$$

(5B) Jakina da

$$\begin{vmatrix} a & b & c \\ p & q & r \\ x & y & z \end{vmatrix} = 2$$

dela. Kalkulatu, erabilitako propietateak azalduz,

(a) $\begin{vmatrix} 3a & 3b & 3c \\ a-p & b-q & c-r \\ 2x-a & 2y-b & 2z-c, \end{vmatrix}$

(b) $\begin{vmatrix} a & x & 2p \\ b & y & 2q \\ c & z & 2r \end{vmatrix}$.

Azterketa eredua 5

LEHENENGO ARIKETA (2 puntu). Hiri-parke batean, paisaia-taldea dekorazio-lorategi bat diseinatzen ari da, espazioa mugatzen duten bi bide kurbatuen artean kokatuko dena. Bide horiek ibilbide parabolikoak egiten dituzte, eta honako funtzio hauen bidez definituta: goiko bideak $y = -x^2 + 2x$ ekuazioko kurbari jarraitzen dio, eta beheko bideak $y = x^2 - 10x$ ekuazioko kurbari jarraitzen dio.

Bi bide horien arteko eremua soropilez eta lorez estaliko da, eta azalera kalkulatu behar da proiektuaren kostua kalkulatzeko. Irudikatu grafikoki bi kurbek mugatutako esparrua, eta kalkulatu haren azalera.

BIGARREN ARIKETA (2 puntu). 2024ko minbizi-zifren estimazioaren arabera, 2024an Espainian diagnostikatutako minbizien kopurua 286.664 kasura iritsiko da, hau da, 2023an baino % 2,65 gehiago, 279.260 kasurekin, Espainiako Onkologia Medikoko Sozietateak (SEOM) eta Minbizi Erregistroen Espainiako Sareak (REDECAN) egindako txostenaren arabera.

Adinaren eta sexuaren araberako zenbatespena honako hau da: 45 urtetik beherakoak % 5,56 dira eta horietatik % 62,86 emakumeak dira; 65 urtetik gorakoak % 59,77 dira eta horietatik % 39,11 emakumeak; eta gainerakoetatik % 42,25 emakumeak dira.

(a) 2024an minbizia izan duen pertsona bat ausaz aukeratuz, kalkulatu emakumea izateko probabilitatea.

(b) 2024an minbizia izan duen emakume bat ausaz aukeratuz, kalkulatu 65 urte edo gutxiago izateko probabilitatea.

(c) 2024an minbizia izan duen pertsona bat ausaz aukeratuz, zer da probableagoa, emakumea izatea edo ez izatea? Arrazoitu zure erantzuna bakarrik aurreko emaitzak kontuan izanda.

HIRUGARREN ARIKETA (2 puntu). Izan bitez $A = (1, a, -1)$ eta $B = (b, 1, 1)$ puntuetatik pasatzen den r zuzena, eta $x + y - 2z = 2b$ ekuazioko π planoa.

a) Kalkulatu a eta b parametroen balioak r zuzena π planoarekiko perpendikularra izan dadin.

b) Kalkulatu a eta b parametroen balioak r zuzena π planoaren barruan gera dadin.

LAUGARREN ARIKETA (2 puntu). Bietariko **bati bakarrik** erantzun, **4A** edo **4B**.

(4A) Izan bedi $f(x) = \dfrac{x}{x^2 - 3x - 4}$.

(a) **(1 punto)** Aurkitu f funtzioaren asintotak.

(b) **(1 punto)** Aurkitu f funtzioaren gorakortasun- eta beherakortasun-tarteak.

(4B) Jakina da $f(x) = Ax^4 + Bx^2 + C$ funtzioak mutur erlatibo bat duela $x = 1/2$ denean eta f-ren grafikoaren zuzen ukitzailearen ekuazioa $x = 1$ abszisa duen puntuan $y = 6x - 2$ dela.

(a) Aurkitu A, B eta C parametroen balioak.

(b) Aurkitu f funtzioaren mutur erlatibo guztiak eta arrazoitu maximoak edo minimoak diren.

BOSGARREN ARIKETA (2 puntu). Bietariko **bati bakarrik** erantzun, **5A** edo **5B**.

(5A) Izan bedi honako ekuazio linealen sistema hau:

$$\begin{cases} x + 3z = 3 + \alpha y \\ z + \alpha x + y - 2 = 0 \\ x + 2z - y = 1. \end{cases}$$

(a) Eztabaidatu sistemaren soluzioen existentzia α parametroaren balioen arabera.

(b) Ahal bada, ebatzi sistema $\alpha = 0$ den kasurako.

(5B) Izan bitez α zenbaki erreala eta

$$A = \begin{pmatrix} 1 & \alpha & 1 \\ 0 & 1 & 1 \\ 0 & \alpha & 1 \end{pmatrix}.$$

(a) Aurkitu α parametroaren balioak A matrizearen alderantzizkoa existitu dadin.

(b) $\alpha = 0$ kasu partikularrean, kalkulatu, ahal izanez gero, A^{-1} eta A^{2025}.

Azterketa eredua 6

LEHENENGO ARIKETA (2 puntu).

$a \neq 0$ emanda, honako ekuazio linealetako sistema hau dugu:

$$\begin{cases} x + ay = 1, \\ x + ay + z = a, \\ (a-2)x + ay + (a-1)z = a + 2. \end{cases}$$

(a) **(1 puntu)** Aurkitu a-ren balio bat zeinetarako emandako sistemak soluzio bat baino gehiago dituen.

(b) **(1 puntu)** Aurkitu sistemaren soluzio guztiak aurreko ataleko a-ren baliorako.

BIGARREN ARIKETA (2 puntu).

(a) **(1 puntu)** Marraztu $y = x(2x-3)$ eta $y = x(2-x)$ ekuazioetako parabolek mugatzen duten eremua.

(b) **(1 puntu)** Kalkulatu (a) ataleko eremuaren azalera, eta eman emaitza zatiki baten bidez.

HIRUGARREN ARIKETA (2 puntu).

Oreka termikoan dagoen gas ideal klasiko bat hartzen da, T tenperaturan. Sistema Maxwell-Boltzmann-en estatistikak deskribatzen du. Gasaren molekulen abiadura gaussiarra ez den arren, osagai kartesiar bakoitza bada. Kontuan hartuta abiaduraren lehenengo osagaia, haren banaketa normala $N\left(0, \frac{k_B T}{m}\right)$ da, k_B Boltzmannen konstantea eta m hartutako gasaren molekula baten masa izanik. Nitrogenoaren kasuan, $T = 300$ K denean, desbideratze tipikoa $\frac{k_B T}{m} = 298$ m/s da.

(a) **(0,75 puntu)** Kalkulatu 300 K tenperaturan dagoen nitrogeno molekula baten abiaduraren lehenengo osagaiaren balio absolutua 300 m/s baino txikiagoa izateko probabilitatea.

(b) **(0,75 puntu)** Kalkulatu 300 K tenperaturan dagoen nitrogeno molekula baten abiaduraren lehenengo osagaia -600 m/s eta -300 m/s artean egoteko probabilitatea.

(c) **(0,5 puntu)** Ikertzaile batek beste gas bat aztertzen du, argona, zeinaren molekulek nitrogenoarenek baino masa handiagoa duten, eta, ondorioz, tenperatura T mantentzen bada, dagokion desbideratze tipikoa txikiagoa da. Zenbakizko kalkulurik egin gabe, erantzun modu arrazoituan: argon molekula baten abiaduraren lehenengo osagaiaren balio absolutua 300 m/s baino txikiagoa izateko probabilitatea nitrogenoaren kasuarena baino handiagoa, txikiagoa ala berdina izango da? Justifikatu zure erantzuna desbideratze tipikoaren adierazpena erabiliz, $\sigma = \frac{k_B T}{m}$.

LAUGARREN ARIKETA (2 puntu). Bietariko **bati bakarrik** erantzun.

(4A) Izan bitez $r \equiv x = y - 1 = -z$ zuzena eta $\pi \equiv -x + 2y + z + A = 0$ planoa.

(a) **(1,5 puntu)** Aztertu r zuzenaren eta π planoaren arteko posizio erlatiboa A parametroaren balioen arabera.

(b) **(0,5 puntu)** Kalkulatu r zuzenetik π planorako distantzia A parametroaren balioen arabera.

(4B) Izan bitez $A = (1, 1, 2)$ eta $B = (-1, 0, 3)$ puntuak.

(a) **(1,5 puntu)** Aurkitu π planoaren ekuazioa, zeinerako A eta B puntuak π planoarekiko simetrikoak diren.

(b) **(0,5 puntu)** Zein da A-tik π-rako distantzia?

BOSGARREN ARIKETA (2 puntu). Bietariko **bati bakarrik** erantzun.

(5A) Hormigoizko tontor batek forma parabolikoa du, haren altuera 12 m eta oinarria 6 m izanik, irudian ikusten den bezala. Eskailera bat kokatu nahi da, tontorraren kontra jarrita eta haren goiko muturra tontorraren gailurraren gainetik 3 m-ra geratzeko moduan. Tontorraren oinarriaren zer distantziatara kokatu behar da eskaileraren beheko muturra?



(5B) Gela errektangeluar batean hormen luzerak 6 m eta 8 m izanik, gune triangeluar bat mugatu nahi da 4 m-ko luzera duen panel zuzen bat kokatuz, irudian ikusten den bezala. Non kokatu behar da panela mugatutako gunearen azalera maximoa izan dadin?



Azterketa eredua 7

LEHENENGO ARIKETA (2 puntu).

Esne-zentral batek bertako hiru ekoizleren esnea biltzen du, A, B eta C. A ekoizleak 10 litroko ontzietan eramaten du bere esnea, eta ontzi bakoitzeko 5 € ordaintzen zaizkio. B ekoizleak 15 litroko ontziak erabiltzen ditu, eta 9 € jasotzen ditu ontzi bakoitzeko. Azkenik, C ekoizleak 12 litroko ontziak eramaten ditu, eta bakoitzeko 4 € ordaintzen zaizkio. Azken astean, 612 litro esne jaso dira, 48 ontzitan, eta guztira 304 € ordaindu behar dira, hiru abeltzainen artean banatzeko.

(a) **(1 puntu)** Planteatu deskribatutako egoera modelizatzen duen ekuazioko sistema.

(b) **(1 puntu)** Zenbat ordaindu behar zaio ekoizle bakoitzari azken astean zentralera eraman duen esneagatik?

BIGARREN ARIKETA (2 puntu).

Izan bedi $f(x) = x^3 + Ax^2 + Bx + C$.

(a) **(1,5 puntu)** Esan zein diren A, B eta C parametroen balioak f-ren grafikoak $x = 0$ abzisadun puntuan duen ukitzailea $y = 3 - 3x$ zuzena izan dadin eta f funtzioak mutur erlatibo bat izan dezan $x = 1$ puntuan.

(b) **(0,5 puntu)** f-k $x = 1$ puntuan duen mutur erlatiboa maximoa edo minimoa da?

HIRUGARREN ARIKETA (2 puntu).

Espainiako azken urteko auto-salmentaren azterketa egin dute. Saldutako 1.148.650 unitateetatik, % 10 auto guztiz elektrikoak dira, eta guztiek aldagailu automatikoa dute. Saldutako unitateen % 52 auto hibridoak dira (bai entxufagarriak bai ez-entxufagarriak), eta horietatik % 6k eskuzko aldagailua dute. Saldutako gainerako unitateetatik % 53 aldagailu automatikokoak dira.

(a) **(1 puntu)** Kalkulatu aldagailu automatikodun zenbat auto saldu diren Espainian 2025ean.

(b) **(1 puntu)** 2025ean Espainian saldutako auto bat ausaz aukeratuta, eta aldagailu automatikoa duela jakinda, kalkulatu hibridoa izateko probabilitatea.

LAUGARREN ARIKETA (2 puntu). Bietariko **bati bakarrik** erantzun.

(4A) Izan bedi P honako bi zuzen hauen arteko ebaki-puntua:

$$r_1 \equiv \begin{cases} x = 1 + t, \\ y = 0, \\ z = -t; \end{cases} \qquad r_2 \equiv \begin{cases} x = s, \\ y = -1 + s, \\ z = 0. \end{cases}$$

Kalkulatu P puntuaren P' puntu simetrikoa $2x + y - z = 3$ ekuazioko planoarekiko.

(4B) Izan bitez r $P(1, 7, 4)$ puntutik pasatzen den eta $\vec{v}(6, 3, -5)$ norabide-bektorea duen zuzena, eta $\pi \equiv 2x + y - 3z = -13$.

(a) **(1 puntu)** Kalkulatu r zuzenaren π planoarekiko ebaki-puntua.

(b) **(1 puntu)** Kalkulatu r zuzenak eta π planoak osatzen duten angelu txikiena.

BOSGARREN ARIKETA (2 puntu). Bietariko **bati bakarrik** erantzun.

(5A) Kalkulatu

$$\int \frac{x^2 - 2x + 3}{x^2 - x - 2}\, dx$$

integrala, egindako pausoak azalduz.

(5B)

(a) **(1 puntu)** Marraztu $y = x^2 - \pi^2$ ekuazioko parabolak eta $f(x) = \cos(x/2)$ funtzioaren grafikoak mugatutako eremua.

(b) **(1 puntu)** Kalkulatu aurreko ataleko eremuaren azalera, eta idatzi emaitza π zenbakiaren funtzioan.

Contenidos

El currículo de la asignatura Matemáticas II, como el del resto de asignaturas de bachillerato, tiene como finalidad la adquisición de una serie de competencias, concretamente:

- Modelizar y resolver problemas de la vida cotidiana y de la ciencia y la tecnología aplicando diferentes estrategias y maneras de razonamiento para obtener posibles soluciones.
- Verificar la validez de las posibles soluciones de un problema empleando el razonamiento y la argumentación para contrastar su idoneidad.
- Formular e investigar conjeturas o problemas, utilizando el razonamiento y la argumentación, con apoyo de herramientas tecnológicas, para generar nuevo conocimiento matemático.
- Utilizar el pensamiento computacional de forma eficaz modificando, creando y generalizando algoritmos mediante el uso de las matemáticas, para modelizar y resolver situaciones de la vida cotidiana y del ámbito de la ciencia y la tecnología.
- Investigar y utilizar conexiones entre las diferentes ideas matemáticas estableciendo vínculos entre conceptos, procedimientos, argumentos y modelos para generar una visión matemática integrada.
- Descubrir los vínculos y profundizar en las relaciones de las matemáticas con otras áreas de conocimiento, interrelacionando conceptos y procedimientos en situaciones diversas para resolver problemas y desarrollar la capacidad crítica, creativa e innovadora.
- Representar información, conceptos y procesos matemáticos seleccionando diferentes tecnologías para visualizar ideas y estructurar razonamientos matemáticos.
- Comunicar las ideas matemáticas, de forma individual y colectiva, empleando el soporte, la terminología y el rigor apropiados, para organizar y consolidar el pensamiento matemático.
- Utilizar destrezas, tanto personales como sociales, identificando y gestionando emociones, aceptando el error y la incertidumbre, creando relaciones saludables y participando activa y reflexivamente en proyectos en grupos heterogéneos, para mejorar la consecución de los objetivos en el aprendizaje de las matemáticas.

Esas competencias deben adquirirse a través de los saberes básicos. En la asignatura Matemáticas II, los saberes básicos se agrupan en seis sentidos:

- Sentido numérico
- Sentido de la medida
- Sentido espacial
- Sentido algebraico y pensamiento computacional
- Sentido estocástico
- Sentido socioafectivo.

En relación con los saberes básicos comunes evaluables en la PAU se proponen los siguientes como marco de referencia fundamental:

SENTIDO NUMÉRICO:

- Adición y producto de vectores y matrices. Producto de un escalar por una matriz. Uso adecuado de las propiedades.
- Destrezas para operar con números reales, vectores y matrices.
